



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

2023ko SAN BARTOLOME JAIETAKO **HAUREN KARTEL LEHIAKETA-ELGOIBAR**

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak lehiaketa antolatu du 2023ko San Bartolome Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko.

OINARRIAK

LEHENENGOA.- Lehiaketa honetan 18 urtetik beherako elgoibartarrek har dezakete parte.

BIGARRENA.- Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Hala ere, ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere.

HIRUGARRENA.- Lanaren neurria librea izango da.

LAUGARRENA.- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea:

“ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2023”

BOSGARRENA.- Dirutan izango ez diren SEI sari banatuko dira.

SEIGARRENA.- Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko epea **2023ko EKAINAREN 23an** bukatuko da, eguerdiko 13:00etan.

Aita Agirre kulturagunea
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk
20870-Elgoibar

ZAZPIGARRENA.- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzeko aldean “leloa” eta egilearen adina jarrita. Honekin batera, kartazal itxi batean, parte-hartzailearen datu pertsonalak bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren “leloa” jarriko da, baita **egilearen jaiotze urtea** ere. Lan bakoitzeko egile bakarra onartuko da, hau da, pertsona bakarra agertuko da lanaren egile bezala.

ZORTZIGARRENA.- Saritu gabeko lanak, epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da. Lanak aipatutako epean jaso ezean, Udalak uste izango du egileak horiei uko egiten diela. Ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, lan horiek egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Saritutako lanak Udalaren esku geldituko dira. Udalak, halaber, inprimatzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubidea izango du, baita gainerako eskubide guztiak ere.

HAMARGARRENA.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartzen den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatzen duen. Horretaz gain, epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezken zalantzak.

HAMAIKAGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu behar dira lehiaketa arautzen duten oinarriak.

Oharra: Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du. Sari banaketara, ez bata, ez bestea bertaratzen ez badira, saria baliogabetu egingo da.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

CONCURSO INFANTIL PARA EL PROGRAMA DE FIESTAS SAN BARTOLOMÉ 2023-ELGOIBAR

El Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar convoca un concurso para el programa de Fiestas de San Bartolomé de 2023, con arreglo a las siguientes:

BASES

PRIMERA.- Podrán participar en este concurso todos los menores de 18 años y naturales de Elgoibar.

SEGUNDA.- La Técnica a emplear será libre (fotografía, pintura, dibujo, collage, etc.), siempre que no se presenten carteles con relieve, ni se utilice plastilina, serrín, etc.

TERCERA.- El tamaño de las obras será libre.

CUARTA.- Deberá constar inexcusablemente, el siguiente texto:

“ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2023”

QUINTA.- Se adjudicarán SEIS premios no metálicos.

SEXTA.- Los trabajos deberán entregarse en Aita Agirre kulturunea, antes de las 13:00 horas **del 23 de JUNIO de 2023.**

Aita Agirre kulturunea
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk
20870-Elgoibar

SÉPTIMA.- Los trabajos deberán ser presentados sin firma del autor y bajo un lema que figurará escrito al dorso, acompañado de un sobre cerrado, figurando en su exterior el mismo lema que en el trabajo presentado y **el año de nacimiento del autor**. En el interior del sobre constarán los datos personales del autor. Sólo será válido un autor por cada obra, es decir, constará una sola persona como autora de la obra.

OCTAVA.- Los trabajos no premiados podrán ser retirados en el plazo de TREINTA (30) DÍAS, contados a partir del fallo del jurado. Transcurrido el plazo citado sin que los autores los hayan retirado, se entenderá que renuncian a ellos, y el Ayuntamiento podrá disponer libremente de los mismos, sin reconocer sobre estos, derecho de reclamación o indemnización.

NOVENA.- Los trabajos premiados quedarán en propiedad del Ayuntamiento, quien se reserva todos los derechos relacionados a su impresión, publicación, difusión, etc.

DÉCIMA.- El fallo del jurado será inapelable. La composición del jurado se dará a conocer el mismo día del fallo. El jurado podrá resolver cualquier duda que se presente en la interpretación y aplicación de estas bases.

UNDÉCIMA.- El hecho de presentarse al concurso implica la plena aceptación de las Bases que lo regulan.

Aviso: La persona ganadora deberá estar presente en la entrega de premios y si no pudiese, en su defecto un@ representante. Si no estuviesen ni uno/a ni otro/a en la entrega de premios, el premio quedaría desierto.